



LEHENDAKARITZA

Kanpo Harremanetarako
Idazkaritza Nagusia
*Kanpoan diren Euskal Herritarrentzako
eta Gizataldeentzako Zuzendaritza*

PRESIDENCIA

Secretaría General de
Acción Exterior
*Dirección para los Ciudadanos y las
Colectividades Vascas en el exterior*

Vitoria-Gasteiz, 2013ko otsailaren 20

2013ko diru-laguntzen eta premia larrietarakoen deialdiak aldatzea

Euskadik orain krisialdi ekonomiko orokorra bizi duenez, Eusko Jaurlaritzaren 2013ko aurrekontua murriztu egingo da nabarmen, eta horrek euskal etxeentzako diru-laguntzak ere murriztea ekarriko du. Aurrekontu-murrizketa horiek eragin txikiena izan dezaten, honako hau proposatu dut:

1. Premia larrietarako diru-laguntzen deialdiari bere horretan eustea, programa horrek gizarte arloko izaera garbia duenez lehentasuna eman behar zaiola uste baitugu.
2. 2013ko deialditik VII. atalerako diru-kopurua (azpiegituretarako eta ekipamendurakoa) kentzea, inbertsioak une egokiagoak iritsi arte atzera baitatezke eta horrela jarduerak sustatzeari ematen diogu lehentasuna. Jakina, errespetatu egingo da 2012an urte horretako deialdiko bigarren ordainketarako konprometitutako diru-kopurua.
3. IV. atalerako diru-kopurua (jardueretarako eta funtzionamendurakoa) %20 murriztea, kontuan izanda murrizketa handiagoa izango zela VII. atala kendu ez balitz. Behin betiko kopurua aurrekontuak Eusko Legebiltzarrean onartzen direnean zehaztuko da.
4. Eskabideak aurkezteko epea otsailaren 28an mantentzea, ezinezkoa baita luzatzea, eskabidea aurkeztu duen euskal etxeek eskabideok aurrekontuaren testuinguru berrira egokitzeko aukera izan dezaten nahiz eta epea beteta izan.

Euskal etxeei eskatu nahi diegu elkarrekiko ulerkortasuna eta elkartasuna izan dezatela, aurtengo diru-laguntzarekiko itxaropena apaldu eta eskabide xumeagoak aukezten ditzaten aurrekontu murrizketarekin bat eginez.

Aurrekontuak onartzen direnean —apirilaren bukaeran onartuko direlakoan gaude—, 2013ko diru-laguntzen deialdia aldatzeko ebazpena emango dugu eta bertan jasoko ditugu azken zenbatekoak

Asier Vallejo Itsaso
Zuzendaria